

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
29/2010	R13/2013	2013/06/28	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Ikuskatzeko eskumena. Eragiketa bolumena

Ebazpena: R 13/2013

Espedientea: 29/2010

Gasteizen, 2013ko ekainaren 28an,

Euskadiko Autonomia Erkidegoarekin izenpetutako Ekonomi Ituneko Arbitraje Batzordeak, Carlos Palao Taboada presidenteak eta Isaac Merino Jara eta Francisco Javier Muguruza Arrese batzordekideek osatuak, honako

ERABAKIA

hartu du Estatuko Zerga Administrazioko Agentziak (aurrerantzean EZAA) Gipuzkoako Foru Aldundiaren (aurrerantzean Gipuzkoako Foru Aldundia) aurka aurkeztutako gatazkari buruz, hau da, 1 ENTITATEAri (IFZ:) 2006, 2007, 2008 eta 2009ko ekitaldiei dagokien BEZaren urteko laburpenaren 390 ereduak aurkez ditzan eskatzeko eskumenaren inguruan, eta ekitaldi horietako Balio Erantsiaren gaineko Zergari lotutako eragiketen bolumena zehazteko eskumenaren inguruan sortutako desadostasuna erabakitzeko. Gatazka hori 29/2010 espediente zenbakiaz izapidetzen ari da Arbitraje Batzorde honetan.

I. AURREKARIAK

1. 1 ENTITATEA helbide fiskala Murtzian duen sozietate bat da. Sozietate horrek, 2010eko maiatzaren 5ean, Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako errekerimendua jaso zuen, 2010eko apirilaren 19ko data daramana; eta errekerimendu horretan, 2006, 2007, 2008 eta 2009 ekitaldiei dagozkien 390 ereduak aurkezteko eskatu zitzaion.

2. Entitateak honakoa erantzun zion jasotako errekerimenduari: "1 ENTITATEAK MURTZIAko 1 HELBIDEAn du bere establezimendu iraunkorra, bere jarduerak

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
29/2010	R13/2013	2013/06/28	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Ikuskatzeko eskumena. Eragiketa bolumena

Murtziako helbide fiskalean burutzen ditu (honekin batera doaz zentsuko datuak), eta 392 eredua Murtziako Zerga Agentzian aurkezten du (honekin batera doaz aurreko ekitaldietako ereduen kopiak)”.

3. Egun batzuk beranduago, Gipuzkoako Foru Aldundiko zerga agentearen telefono-dei bat jaso zuten enpresan. Dei horren bitartez entitateari jakinarazi zitzaion, burututako jarduera Gipuzkoan lekututzat jo daitekeenez, aitorpenak Gipuzkoako Foru Aldundian aurkeztera behartua dagoela. Era berean, jakinarazi zitzaion, behar ez den moduan egindako sarreraren itzulketa eskatu behar ziola EZAari.

4. Entitateak, aitorpen horiek aurkezteko betekizuna garbi ez zeukanez, 2010eko ekainaren 29ko data zeraman idatzi bat erregistratu zuen EZAAan, 2010eko uztailaren 2an. Idatzi horretan adierazten duenez, “1 ENTITATEAK akordio bat dauka kamioilariak gasolioaz hornitzeko erabiltzen dituzten mugako hainbat gasolindegirekin. Enpresa honek, gasolio kontsumorako txartel bat uzten dio kamioilariari, hau aipatutako gasolindegietan hornitzen da, baina berak ez du ordaintzen; aitzitik, gasolinaren ordaintzailea 1 ENTITATEA da, eta honek jasaten du erregaiari dagokion BEZa. Enpresak, hilaren bukaeran, erregaiaren kostua fakturatzeko kamioilariari, 1 ENTITATEAK jasandako beste hainbat gasturekin – bidesariak, esaterako– eta emandako zerbitzuen komisioarekin batera. Gipuzkoako Foru Aldundian ulertzen dutena da 1 ENTITATEAK zerbitzua lurralde horretan burutzen duela zuzenean”.

5. Idatzi horretan, bukatzeko, adierazten duenez “behar ez den moduan egindako sarrera-kopuru handia eskatu beharrean gaudenez, nahi genuke Administrazio horrek esatea ea behar ez den moduan egindako sarrera horien itzulketa eskatzera behartuak gauden eta, hala bada, nola jardun behar dugun, dirua EZAA honetan sartu baitugu”.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
29/2010	R13/2013	2013/06/28	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Ikuskatzeko eskumena. Eragiketa bolumena

6. EZAk, 2010eko irailaren 2an, egun horretako data daraman inibizio errekerimendua egin zion Gipuzkoako Foru Aldundiari, 2006, 2007, 2008 eta 2009ko ekitaldietako BEZari buruz 1 ENTITATEAREN aurrean hasitako jardueretan atzera egin zezan.

7. 2010eko urriaren 29an, Arbitraje Batzordearen Araudiaren 13.1 artikuluan ezarritako hilabeteko epea beteta zegoenez, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak erantzun ez zuenez, EZAk interpretatu zuen GFAk tazituki berretsi egiten zuela bere eskumena –Gipuzkoako Foru Aldundiak inibizio errekerimendua espresuki baztertu egin zuen 2010eko abenduaren 16an–; eta horregatik, Araudi horren 13.2 artikuluan aurreikusitako hilabeteko epearen barruan, eskumen gatazka aurkeztu zuen Arbitraje Batzorde honetan. Honek, gatazka tramitatzeko onartu zuen eta horren berri eman zien, modu egokian, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta entitateari.

8. EZAk Arbitraje Batzorde honi eskatu zion, aitortzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiak ez duela eskumenik ez 1 ENTITATEARI 2006, 2007, 2008 eta 2009ko ekitaldietako BEZari buruzko 390 ereduak aurkez ditzan eskatzeko, eta ez ekitaldi horiei buruz entitateak aitortutako kopuruetan, Administrazio desberdinei ordaindu beharreko zatiak zehazteko; izan ere, aitortutako datuen arabera eta Itunean xedatutakoari jarraituz, eredu horiek EZAN bakarrik aurkeztu behar baitira, hain zuzen ere, aipatutako tributua eta ekitaldiak egiaztatze eskumena duen Administrazio bakarra bera denez, berari dagokiolako Administrazio bakoitzari ordaindu beharreko zerga-zatia egiaztatzea.

9. Gipuzkoako Foru Aldundiak, alegazioen idatzia aurkeztu zuen, xede horrekin emandako hilabeteko epearen barruan, dokumentazio jakin batekin batera. Eta agiri horietan, azkenean, gatazka honen objektu diren jarduerak burutzeko eskumena duela aitortuko duen ebazpena emateko eskatu zuen.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
29/2010	R13/2013	2013/06/28	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Ikuskatzeko eskumena. Eragiketa bolumena

10. Instrukzioa egiteko izapidea bukatu eta espedientea osaturik, agerian jarri zitzairen bi administrazioei eta entitateari, bidezkotzat jotako alegazio guztiak Arbitraje Batzorde honetan aurkezteko hilabeteko epea emanaz. Gipuzkoako Foru Aldundiak 2013ko otsailaren 22an aurkeztu zituen bere alegazioak, gatazkaren aurka egiteko xedez aurkeztutako hasierako idatzian azaldutako argudioak berretsiz. EZAAk 2013ko martxoaren 6an erregistratu zituen bereak. Idatzi horretan, gatazka aurkezteko idatzian azaldutako argudioak berretsi zituen, laburbilduta, eta gatazka gorago adierazitako eran ebazteko eskatu. Entitate interesdunak ez du alegaziorik aurkeztu.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1. Gatazka honetan gure irizpena emateko eskatu zaigu Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumenaren inguruan; hau da, eskumenik baduen ala ez, 1 ENTITATEARI 2006, 2007, 2008 eta 2009ko ekitaldietako BEZari buruzko urteko kontuen 390 ereduak aurkez ditzan eskatzeko, eta ekitaldi horietako zerga-ordainketan Administrazio desberdinei (EZAA eta Gipuzkoako Foru Aldundia) dagozkien zatiak egiaztatzeke. Hauek dira gatazka honetan erabaki beharreko auziak: lehenik, BEZaren urteko ereduaren aitortpena (Gipuzkoako Foru Aldundiak onartutako 390 eredu) aurkezteko exijitzeko ahalmena; eta bigarrenik, BEZa zein proportziotan ordaindu behar den egiaztatzeke eskumena.

2. Gipuzkoako Foru Aldundiak Ekonomia Itunaren 46.Bi.a) artikulua aipatu du bere eskumenaren lekuko. Artikulu horren arabera, “zerga-informazioa orokorrean emateko betebeharrak betetzeko diren legez eskatutako aitortpenak Estatuko Administrazioari edo lurraldearen arabera eskumena daukan foru aldundiari aurkeztu behar zaizkio, irizpide hauek kontuan harturik:

a) Zergadunek ekonomia jarduerak egiten badituzte, eurek egiten dituzten jarduera enpresarial edo profesionalak egiaztatu eta ikertzeke eskumena daukan administrazioari”.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
29/2010	R13/2013	2013/06/28	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Ikuskatzeko eskumena. Eragiketa bolumena

Alabaina, arau hori ez da kasu honetan aplikatzekoa, zerga aitortpenak aurkezteaz bestelako betekizunei buruzkoa baita.

3. Ez da bidezkoa Gipuzkoako Foru Aldundiak Ekonomia Itunaren 29.Sei artikulua aipatzea, inon ez baita ukatu ikuskatzeko eskumena, BEZaren kasuan bakarra dena, EZAAri dagokiola.

4. Aldika-aldika aitortpen-likidazioak aurkezteko betebeharra Ekonomia Itunaren 27.Bat eta 29.Lau artikuluetan arautua dago. Eragiketen bolumena 7.000.000 eurotik gorakoa izan duten subjektuei dagokienez, artikulua horietan lehenengoak hau ezartzen du lehen erregelak gisa: “euskal lurraldean bakarrik jarduten duten subjektu pasiboek zerga guztiak dagokien foru aldundian ordaindu behar dituzte; eta lurralde erkidean bakarrik jarduten dutenek Estatuko Administrazioan ordaindu behar dituzte”. Hasiera batean, gerora egin daitezkeen egiaztapenak baldintzatu gabe, 1 ENTITATEAK soil-soilik lurralde erkidean jarduten zuela aitortu zuenez, Estatuko Administrazioan bakarrik ordaindu behar ditu zergak. Bigarrenaren arabera, subjektu pasiboek Zergaren aitortpen-likidazioak aurkeztuko dizkiete zerga ordainarazteko eskumena daukaten administrazioei. Aitortpen-likidazio horietan, aplikatu beharreko proportzioak eta administrazio batari edo besteari dagozkion kuotak jaso beharko dira beti. Horrela bada, esan dugun bezala, kasu honetan BEZa ordainarazteko eskumena duen administrazioa Estatuko Administrazioa bada, horretan bakarrik aurkeztu behar dira aldizkako aitortpen-likidazioak. Eta aitortpen horiek Administrazio horretan aurkeztu behar badira, urteko aitortpen laburpena ere bertan aurkeztu behar da.

5. Dena den, entitateak 2006, 2007, 2008 eta 2009ko ekitaldietan burututako eragiketen zifrak egiazta daitezke, eta hala egokituz gero, baita aldatu ere. Jakina, ikuskatzeko eskumena duen Administrazioak egin behar du egiaztapen hori. Ekonomia Itunak ez du adierazten, espresuki, zer gertatzen den entitateak

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
29/2010	R13/2013	2013/06/28	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Ikuskatzeko eskumena. Eragiketa bolumena

aitortutako edota beste Administrazioak egiaztatutako eragiketen bolumena, ikuskatzeko eskumenik ez duen Administrazioak egiaztatu nahi duenean. Horrek ekar ditzakeen arazoak saihestearren, EZAAk eta aldundiek jarduteko protokolo bat onartu dute; eta protokolo hori, EZAAk eta Euskal Autonomia Erkidegoko foru aldundiek Bilbon egindako bileraren aktan jasota dago; hain zuzen ere, helbide aldaketak, eskumenik ez duen Administrazioan egindako sarrerak, zergen kontrola, akta bakarrak eta BEZaren bilbeak aztertzeko lantaldeen ondorioak aztertzeko 2006ko maiatzaren 18an egindako bileraren aktan. Protokolo horrek honakoa ezartzen du eragiketen bolumena egiaztatzeari dagokionez:

“Zergadun jakin bat ikuskatzeko eskumenik ez duten administrazioek, zergadun horrek lurralde bakoitzean burututako eragiketen bolumena egiaztatze eska diezaioke administrazio eskudunari. Horretarako, ikuskatzeko eskumenik ez duen Administrazioak informe bat bidaliko dio eskumendunari, zergadunarengandik lortutako datuekin, hain zuzen ere xede horretarako behar-beharrezkoak diren datuekin.

Ikuskatzeko eskumena duen Administrazioak, administrazio eskatzaileari jakinaraziko dio, bi hilabeteko epean, zergaduna egiaztatzen ari den, hori egin lezakeen, eta horretarako gutxi gorabehera zenbat denbora behar duen”.

6. Gipuzkoako Foru Aldundiak kasu honetan ez dio bide horri jarraitu. Aitzitik, urteko aitorpena aurkezteko eskatu dio, zuzenean, entitateari. Egia esan, hori baino gehiago eskatu dio, bidezkoak izan litezkeen kuotak ordaintzeko ere eskatu baitio. Eta hori horrela da, Foru Administrazioko zerga agente batek entitate interesdunarekin telefonoz izandako elkarrizketatik ondorioztatzen denez; izan ere, elkarrizketa horretan, EZAAri 2006, 2007, 2008 eta 2009ko ekitaldietan BEZaren kontzeptupean ordaindutako kopurua itzultzeko eskatu baitzion. Elkarrizketa hori ez du inork ukatu; aitzitik, Gipuzkoako Foru Aldundiak berretsi egin du, izan ere bere alegazioetan ikus daitekeenez “Administrazio honek ez dio behin-behineko

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
29/2010	R13/2013	2013/06/28	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Ikuskatzeko eskumena. Eragiketa bolumena

likidaziorik egin zergapekoari (ez eta egiteko asmorik izan ere), errekerimendua egitearekin lortu nahi izan duen gauza bakarra, zergadunak bere zerga egoera borondatez erregularizatzea izan baita”.

Baina, berez, Foru Ogasunaren 390 eredia ez da aitorten-laburpen soil bat, BEZaren urteko aitorten-likidazioa da, azkeneko zergaldiko autolikidazioa ordeztzen duena. Zerga aitorten hori, Gipuzkoako lurralde historiko zerga araudia Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legera moldatzen duen 102/1992 Foru Dekretuak, abenduaren 29koak, 167. artikuluan xedatutakoaren babesean ezarria dago, eta urte naturalean egindako eragiketak biltzen ditu Balio Erantsiaren gaineko Zerga likidatzeko. 390 eredia, bestetik, ekitaldiko azkeneko aitorten-likidazioa da; beraz, hori izanda ez da betebeharririk BEZaren aldizkako, hileko edo hiruhileko, beste aitorten-likidaziorik, bestelako ereduak erabilita.

7. Arestian aipatutakoaren aurrean ezin da esan, arrazoiz, zergapekoak bere zerga egoera borondatez ez bazuen erregularizatzen, 390 eredia aurkeztuta lortu nahi zena, ordezeko izaeraz, honakoa zenik: “datuak lortzea, zergapekoak aitortutako eragiketen bolumena aldatzeko kasuan kasuko prozedura sustatzeko, bidezkoa izanez gero, baina betiere ikuskapen esparruaren barruan eta, edozein kasutan ere (oso inportantea da hori) Estatuko Administrazioaren eskumenak errespetatuta”. Arbitraje Batzorde honen iritziz, Gipuzkoako Foru Aldundiak ez du jardun arauak diseinatutako bideari jarraituz, oraingoan ez ditu aintzat hartu kasu honetan Estatuko Administrazioari dagozkion eskumenak.

8. Foru Administrazioaren esanetan, 1 ENTITATEAK, aipagai ditugun ekitaldietan, Gipuzkoako Foru Aldundian aurkeztu zituen Zenbait Hidrokarburoren Txikizkako Salmenten gaineko Zergaren autolikidazioak. Ekonomia Itunaren 34.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, zerga hau ordainarazteko eskumena Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokio kasu jakin batzuetan; zehazki, “Zergaren eremu objektiboak barruan hartzen dituen ekoizkinen salmentak edo emateak, euskal lurraldean

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
29/2010	R13/2013	2013/06/28	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Ikuskatzeko eskumena. Eragiketa bolumena

kokatutako txikizkako salmenta-establezimendu publikoetan egindakoak direnean, salbu eta ekoizkinok lurralde horretatik kanpo jaso eta kontsumitzeko beharrezko instalazioak dituzten azken kontsumitzaileei egiten zaizkien horniketak. Alderantziz, foru aldundiek ordainaraziko dute zerga, Euskadiko lurraldean jaso eta kontsumitzeko beharrezko instalazioak dituzten azken kontsumitzaileei lurralde erkidetik egiten zaizkien horniketak direla-eta". Gauzak horrela, susmoa dugunez (ziurtasuna, hobeto esanda) entitate interesdunak Gipuzkoan eragiketak burutu zituela, Gipuzkoako Foru Aldundiak jarraitu beharreko bidea zen EZAri zergadunaren eragiketen bolumena egiaztatze eskatzea, Administrazio hori baita BEZa ikuskatzeko eskumena duena. Baina beste bide bati heldu dio, Ekonomia Itunean xedatutakoarekin bat ez datorren bide bati.

Horrenbestez, Arbitraje Batzordeak

ERABAKI DU

Gipuzkoako Foru Aldundiak ez duela eskumenik ez 1 ENTITATEARI (IFZ:) 2006, 2007, 2008 eta 2009ko ekitaldietako BEZari buruzko 390 ereduak aurkez ditzan eskatzeko, eta ez ekitaldi horiei buruz entitateak aitortutako kopuruetan, Administrazio desberdinei ordaindu beharreko zatiak zehazteko.